

erabagiak artu baño lenago, oin-arauok euskaltzain bakotxak artu aztiro-aztiro eta bere eretzizko artezketa geitze edo gitxitzeak euroi egitea.

ALTUBE, *euskaltzaina*.

s X

ERDERATIKO ITZAK, ITZ SORBERIAK ETA BEINOLAKO ITZAK

(BATZAR BERTAN AZKUE YAUNAK EGINDAKO IKERPENA)

Gure lankide, izatez asberri, irudiz as-zar onek beronen lan politari, *amaitzeko* guri zuzendu dizkigun leioetan, izen egoki bat ezarri dio : oin-arauak (erderazko *bases-i* dagokion itz goxoa).

Nik nere lantxo oni ¿ zein eman otenezakikeo ? gure basefitañak oinetakoen txaplatak adierazteko gutxienez bi itz erabili darabilzkite : *zopita* Bizkayeraz; Gipuzkeraz *zazarki* naiz *zazarkin*. Itz auetatik bat zein bestea aolan artuko banu, Altuberen ikerpena abarka zar baten ide dala erakutsiko nuke, *zazarkin-zopitak* abarka-txaplatak baitira; nik, ordea, gure lankidearen etekin au lan eder, mamintsu, zinezko oin-arau esten det. *Geigari* izan nere zertxo onen izena ta bañena sar gakiozan.

De Sintaxis euskérica izenez orain urte bete argitaratu zuan gutuntxoan erderatiko itzak irutarikoak dirala irakatsi zigun : 1° euskerazkotzean aldakuntzetxoren bat izan duenak : *luma, landara...*; 2° oso-osorik gure ezpainetan bizi diranak : *pelota, torre* ta beste balzuk; 3° beste edozein izkeratan mintzo oi diran *politica, academia, música, orquesta, zepelin, hotel, cafe*. Eta iru mordo auetako

itz guziak, beren antzekoak ondoan zituztelarik, gure iztegian sartu bear ditugula uste zuan. Irugaíen mordo-koak, geyen geyenak beintzat, iguin ez ingira gabe sartuko nituke nik ere ta « política » *politica* izango genuke; « música » *musika*; « orquesta » *orkesta*; « zepelin » *tze-pelin*; « hotel » *hotel*, *h* ta guzti, *garezi* ere ezpaita; ta « café » etxea danean *kafetxe*; ta zuñut egiteko ur beltza bada, *kafe* esango nuke, *kape* nere eriko arantzaleai ta aketa Hazpaíen-aldeko atso edaleai utzita.

Beste bi mordosketako erdalitzak geyagoko gabe enituke iztegiratuko. Euskalerian inun ere ordezeko itz jatorizkorik eztulenak, oriek bai. Altubek bi sail orietan bildutako itz geyenak dute, ordea, nunbait beren egokia. *Erloju*-ren ordeze Lapurdin ta Benapaíoan « oren » entzundet alde ta aldi askotan; *balio* andikoa, « domutsua » esaten zuan nere Amak; *pixu* « azta » da Bidasoatik aronzko zenbait iritan; *liburu*, gutun; *makiña*, lanabes Axulaíen egunetatik, laburenez; erdalitz *lumaren* ordeze *erbatz* degu nunbait txikiak adierazteko, andiak *egats* toki askotako itza dute berenki; *landara*-ren ordeze *ondosko* (bear bada *ondosko*) batu nuen Bizkai ta Giputz-uri batzuetan; *urkatu* ta *gaztelu* dira orderik gabeko ta sail orietako erdalitz bakaíak.

Kanpae, *kanpai*, *kanpana* esan beaíean *txilin* esan oi degu Bizkaiko alde askotan. Ain zuzen ere « bronze » *Txilinki* esaten dala Altube-ri ikasi nion « material de campanas » itzez itz. *Zeinuak deraunzano* esan zigun Oihenartek *kanpayak oska ari diranarte*-ren ordeze.

Norbaitek yarki dezaket Oihenartek ori idatzi baino mila ta seireun bat urte lenago Sallustiusek *Signa canere* (gure *yoareak* (instrumentoak) -yo) esan zuela; ta Benapaíoaco ta Zubero-aldeko « zeinu » ori latinu zaíen *signum* zala ta zeinu baino kanpae belafirako ozenago dala ta bat ori ala beste au autatu bear bada.....

Bai, ulertu det; baina neri ere bide bezait esatea : 1° txilinak oska diran artean, kanpae oriei mingaina kentzea on dirudiela ; 2° txilinak isildu balitzazkigu ta Oihenarten zeinua ta Sallustius-en *signum* izaki bakar bat izanañen, zeinua zañago da gure artean, kanpana ori gainera nabar-menagoa, bere atzeri-kutsua añanpalo darakuskuna ; ta ozenago ala motelago izate ori..... bai, Eñetorika ikasi genuen egunetako gomutatxo bat buruan duen bat edo batek aipa dezazke Iriarte olerkariaren arako neurtitzak :

En una Catedral
una Campana había
que sólo se tocaba
algún solemne día.

Kanpanketa ozen ori Schiller-en *glöke*-ots ozenago onek erantzun dezayola :

Von dem Dome schwer und bang
tönt die Glocke Grabgesang (1).

Ozentasuna bear bada, ez Iriarte ez Schiller ezta sakristaurik ere eztu bear gure txilin-ek edozein belaritan otsa zoli-zoli egiteko.



Barka, lagunak, nere luma nai nuen ia bear zan baino bizkoñago ibili bazait. Altube' tañ Sebeñk bigañen sailean bost itz sartu zituan : *pelota*, *toñe*, *kotxe*, *pañila* ta *lima*. « Torre » Eñonkarin² *txirin* da ; « parrilla » aintzinako zurezkoa beintzat *matxaño*, Alduden ta Getaryn gutxienez ; « lima » ren ordez *kañaka* esan oi da Benapañoan, Lapurdin ta Zuberon. *Pelota* ta *Kotxe* oriek bai, sar bekiz-

1. Katedral batetik dinglindan zeinua durundika ari zan.

2. Saraitzun (valle de Salazar) Eñongari ta Kañesa esan oi dute Eñonkari-ren ordez.

kigu, au heronen *pescante* ta guzti, nai hadu; hura, beraren *paret* eta *érebotea* mugan utzi gabe.

* *

Gero gure araulariak, zerbait geixeago aztertuz ta norbaitzuk onetarako itunduz, oin-arauok zeatzxoago asmoa artu zuan. Bere aburuz gure Iztegian, bi aleak zabalik, artu bear ditugun erdalitzak auek dira :

1º Euskerazkotzean beren otsa nolabait aldatu dutenak; eta erakusmentzat, lengo *luma* ta *landara* ta *urkatu* ta *erloju* ta *pixu* (erderazko « peso »)-ren gainera beste itzok aipatu dizkigu; *mailu*, *mailuka*, *yungura*, *po'u*, *soru* (erderazko « suela ») ta *eliza*. Len esan dedana : auek eta beron tayudun erdalitz aldatuxe ditugun oro etxeko egin ditza-gun, baldin beroi dagozkiten itz euskera utzezkorik inun ezpada.

2º Gure artean bizi diranartean beste zentzun bat artu duten erdalitzak. Erakusmentzat sei itz dakartzki : *érola* (noizbait « rueda », orain « molino »); *makina bat* (lenago « máquina », gure egunolan « multitud »; *kalamatrika* (aintzina « gramática », aspaldion ere « gramática parda »); *éretolika* (asaben artean « retórica » gizaldi onetan beintzat « retahilla »); *zapo* (jatoritz « sapo », gaur « mal intencionado » ere bai); *puntuon etori* esakeran « punto » tik « momento » ra yo du erdalitz ofek. Nik beli lena : euskalodol gabeko itz gizaldiz gizaldi gure artean bizi diranak ere ezpainez belari erabili dezazkegu, baldin euskerak berez orien ordezeko itz egokirik lendik ezpadu. Ain zuzen ere Altubek erakutsi dizkigun sei eredu oriek, seirok dute bakoitzak bere ordea, gutxienez bat. *Erolak* bi ditu : bat erderatikoa dirudien *bolu*, bestea itz jator, masal, Gorbea bezain urtetsua ta geron gerona : *igara*. Tamalez iru aldakuntze ditu ele eder onck : *eihara*, *eihera*,

ihara. Euskera, zugatzak bezela, bizi beña emateko, inaus dezagunean, onelako itz-aldakuntze auek lur yo bear izango dute. ; Makina batek makina bat ordezkoditu, euskerazko ta erderazko, euskera mordoiloizko ta erdera ustelezko! Lenengoa : *bost daki orek!* Bigaena ; *Amaika badu!* Irugaena ; *Au da zaldiz!* (AN). Laugaena ; *Au da zaldizkoa!* (B). Boskaena ; *Au da zalditzea!* (B). -Seigaena : *elemenia* (Ormaiztegin), *elemena* (Arona-Azpeitietan), *eleluma* (Andoainen), *emana* (Laraunen). Zazpigaena : *sendo* (Lekeition). Zortzigaena : *indar* (B-I). Bederatzigaena : *iñauri* edo *ihauri*. Amargaena : *alde ta talde* : *gizalde, beitalde...* Amaikagaena : *saldo*. Amabigaena : *-keta* (AN ta L) : *gizonketa, arai- ta arainketa, yendeketa*. Amairugaena : *ze xori-bola* (S). Amalauagaena : *uakana* (B-I) itzez itz « el huracán ». Amaboskaena : *inpirioa* (B-mu) itzez itz « el imperio ». Amaseigaena : *ainbeste*. Amazazpigaena : *edozeinbat...* eta abar.

¿ Ezaldezue uste, gizonak, onen beste itzek eta esakerak makina zartxo ori, batak bil edo gurpil batetik, besteak igunetik, besteak sayetsetik, besteak kirtenetik, azpi- ta gainetik elduta, poliki-poliki Ebrora eraman ta uretara yaurtiki dezatela ?

« Mal intencionado » adierazteko ere *zupo*-ren ordez baditugu *erube*, *sital* ta *besteren* bat. *Puntuon* elori da esan bearean, *arestian* entzun oi da Gipuzkoan. *Kalamatrika* ta *eñetolika*-k aide asko ditue gure artean nik bati ere nere Izlegian tokirik ez eginafen. *Astroliotasunak* « astrólogo » esan nai zuen beinola, orain amañukeria adierazten du; *artzobispokeriak* bereratasuna; *doministikuna* usin, *cnoxun* edo atijea (estornudo) adierazteko erabiltzen du gure eñiak. Lekeitiañak *susunkordan* gelditzen dira añigarizko zerbait entzutean, apaiza meza-bitartean *Sursum corda* esanda gora begira gelditzen dan bezela. Onelako izentzat ere izan dezakegu gure etxean txokoren bat, bizirik

geyena lo eramango duela yakin dakigularik. Ezaltzitan Cervantes-ek Sancho Panzaren ezpainetan *voquibles* ta *leña* ta *cris* jartzen *vocablos* ta *linea* ta *eclipse*-ren ordezt Cervantes-antzekorik gure artcan bat izan ezañen, Sancho Panzaren antzeko Anton Peloak ugari ditugu ta bizi bitez beren ezpainetan *kalamatrika*, *erretolika*, *astroliokeri* ta oñen ereduko elekontdotxoak ere, ni gora-bera.

Iruñgañen erdalitz gureztat artzekoak « euskerazko beste itzen bat ezañita bizi diranak » ditugula dio oinaraulariak. *Tabakori*, *elizgizon*, *zapaburu* (zapo-buru ezlet bein ere entzun), pipontzi, artagaraun eta abar.

Gizon arotzakin bezela gertatzen zaigu (len aipatu dedana) itz arotz oyezaz ere. Vallabrigas karabinerua Jaungoikoak dakian nundikbait agertzen zaigu, Arizmendi neskatxa aldamenca duela Pañoku yaun bati agertzen zayo ta ark, saputs bada ere, ezkondu egin bear ¿nork atera gero Euskaleñitik Vallabrigas-Arizmendikume ayek? Aberastzera nai beintzat zerbait izatera elduz geroz, badakie Juan V. de Arizmendi dirala esan ta agertzen.

Artagaraunak iretsi ta zapaburuak il ta pipontziak austea eñazago du beste aldera eramatea baino.

Gernikako euskaltzain odolotz onck ango *utselapiko* dala ta eztala diona egia izan diteke, nik ikusi ezañen. Erderazko *hucha*-tikoa dala uste du. Lekeition, Mundakan ta beste alde askotan *itxulapiko* du izena, Gipuzkoan *eltze itsua*, erderaz « alcancia » ta « olla ciega » ere bai. Beñiz diot. Nik ikusi ta uste izan ezañen, egia izan diteke *argizagi*-ren aldakuntze *argizeri*-z diona bezela ta goazen auñera.

Laugañen oin-araua osorik artu bear bagendu *berba*-ren ordezt *itz* erabiltzea ezkenuke bide izango.

« Tripa » erderazkoa, euskalatzizki (sufijo) *ki* ezañita *tripaki* esaten degulako, euskerazkotzat erabili bear izanezkeru ¿nor azartuko da *berba* iztegitik eta autuetatik

ateratzen? *Berbaldun* « hablador », *berbarako* « por ejemplo », *berbaro* « rumor de voces », *berbatu* « convenirse », *berbeta* « conversación », *berbots* « ruido de palabras », *berbaldi* « plática ». Oizmendi-aldetik nere yaioteñira aldikada baten gazta-saltzera artzain bat etortzen zan. Bein kalera-ekero, bere elekinak eñazago saltzeko edo, erderaz aldañi egin bear zala uste zuan; ta Lekeitiar bañesamuren belañiak ederki gozaten zituen Oizko gaztanganak kalean « El Gaztanero » deadar eginez.

Ero atzizki ori erderazkoa izanañen ¿artuko otelukete beren iztegian Maurak eta Menendez Pidalek El Gaztanero, « el quesero »-ren laguntzat? Seigañen oinarauak ere eztakit artu otedezakegun. « Ots egogizko » erdalitzak iztegiratu bear ditugula. Ots egogizkoak dira gure belarietarako *txopoa*, *palazioa*, *miserikordia*, *piso prieroa*, *adelantatu* ta *atrasatu* ta beste gabe gure *makal* ta *yauregi* ta *eruki* ta *lenengo bizitza* ta *aureratu* ta *atzeratu* (*aitzin-gibelatu*) yaiegunetarako soinekoak bezela kutxan sartu bear oteditugu?

Atzeñiko gauzak atzeñiko itza beukate izentzat : « peseta » *pezeta* izan bite, « guitarra » *gitarra* ta « picador » *pikadore*. Zalantzaiditxo batean asmatzen det, oñegatik, nere burua.

Atzeñiko gauza batzuk bi itz dauzkate euskaldunen artean; bata erdera zañelik artua, bestea gure egunetako erderatikoa. *Pezeta*-ren ordeñ *libera* esan oi da Bayonaldean; *Kanonigu* emen diranak an *kalonye* dira; Bizkaiko *bautisoa* beste alde askotan *bateo* ta *batayo* esan oi due. ¿Zeintzuk artu bear oteditugu aintzat?

Uñengo oin-araua ere, oso-osorik eta eñotik erauzi bear ezpada, ikutu beañekolzat daukat. Euskaldun lauen artekoak dirala ta beste gabe erdalitzak euskerazkotzat artzeari ezleritzayot egoki kutxan gurerik degula beintzat. *Kabaloa* ta *karoa* ta *binagrea* ta *tanbora* ta *kopeta* ta *pana-*

deroa ta *petxo*a ta *kamisa* ta *kostura* lisoa ta beste amai-
kareun mordoilokeri eñi lauak = *publiku sentziloak* esan oi
ditu ta guk *publikutxo* oñi *gustu* emateko *zaldiak* il egin
bear oteditugu? *gurdiak* eta *orgak* eñe? *ozpina* isuri?
añaskoa puskatu? *bekokia* ta *bulara* estali? *okinak* afoztu?
atoña joskura legun ta guzti betiko gorde?

Egoki ta erara aipatu digu Altubek zentzun berdina
edo beintzat berdintsua duen itzak banandu bear genitu-
kela. Iztegiaren itzauñean onelako gertaritzo bakar bat
aipatu nuen : *itandu* ta *galdetu*. Euslari geyenak zentzu-
nide (sinónimo) dirala uste izan añen, Izpazteño luñean
entzun ditut zentzun bana duela : « *preguntar* » ta « *ave-
riguar* ». Ona emen geroztik bildu al izan ditudan gertari
edeñak, guziak eñiarenak.

Reparticiones semánticas populares :

1. *Agotz*, herrero; *arotz*, carpintero (AN-lakuntza).
2. *Aitzur*, azada; *aiztur*, tijeras grandes (AN, BN, L).
3. *Apaldu*, cenar; *apalatu*, humillar, abatir (B-mu).
4. *Añainzale*, ictiovoros; *añantzale*, pescador (B-l).
5. *Aup*, grito de llamada; *eup*, insulto (B-l).
6. *Buruko*, montera, toca; *buñuko*, almohada (B...).
7. *Biztu*, resucitar; *bizitu*, animarse, encrespase (B-mu).
8. *Beetxe*, entresuelo; *beketxe*, casa de abajo (B-mu).
9. *-era*, acto; *-kera*, modo (B...); *Egoera*, estancia; *ego-
kera*, postura (B-mu); *ibilera*, andanza; *ibilkera*,
porte (B-l...); *urteiera*, salida (puerta); *urleikera*,
salida (acto) (B-g).
10. *Gaba*, la noche; *gaua* la cerrazón (B-l); En castellano
prójimo y *prójimo*.
11. *Elizkari*, funerales; *elizkizun*, función de iglesia
(B-mu).
12. *Gose izan*, sentir hambre; *gosetu*...
13. *Ekak*, dame; *ekañik*, trae; *ekazu*, deme; *ekañizu*, trai-

game V. (B...); *koko*, bobo; *mamo*, boba (B. ms. Otx. p. 15).

14. *Ondasun*, bienes hacienda; *ontasun*, bondad (B).
15. *Oba*, mejor (cosa); *onugo*, más bueno (persona).
16. *Oñatz*, alfiler (antes aguja); *jost^oñatz*, aguja (B).
17. *Oñatu*, peinar; *oñazitu*, enrarecerse la lluvia, quitar espesura, clarear semillero (B-l).
18. *Osasun*, salud; *osotasun*, entereza, integridad.
19. *Ondatu*, hundirse, calarse, arruinarse; *ondoratu*, ir al fondo, naufragar (B-l).
20. *Lan egin*, trabajar; *landu*, labrar, cultivar (B).
21. *Osotu*, reintegrar, completar; *osatu*, sanar, castrar.
22. *Etxandra*, hacendosa; *etxandera*, propietaria (B-mu).
23. *Sendatu*, sanar; *sendotu*, fortalecerse (B).
24. *Uzu*, fiero; *uxu*, espanto (B).
25. *Zapaldu*, aplastar; *zapalatu*, chapotear y ¿desbaratar?
26. *Zoldu*, enconarse; *zolitu*, madurar (B. ms. Otx. p. 260).

Ona emen, lan oni noizbait azkena emateko, itz zar ta beñiz uste dedana. Beñirik noraezean baizik ez sortu; zañak añen bai añen bildu ta eguneroko paper ta ikasgu edo eskolen bidez Euskaleñi guztian zabaldu.

§ XI

ARAU NAGUSIAK

(BELAUSTEGIGOITIA TAÑ P. EUSKALTZAIN URGAZLEAK, EPAIÑAREN
24 GAÑENeko BATZAREAN EGINDAKO IKERPEÑAÑ).

1. Euskeraren bizitza ta apaintzerako Euskaltzaindia sortu zan.

Euskera bañdindu, garbitu ta aberaztutea bere lan nagu-

1. Ikus EUSKERA onen I^o Atala, 68 gañen oñian.